

ZAPATARI KALEA





ARTISAU ZAPATARIEN KALEA

Artisauak biltzen zituen kalean gaude, zapatagileen gremiokoak, bereziki, hortik bere izena, eta ustez, hiru kale nagusietan zaharrena izan litekeenean. Antzina kale hau hiru zatitan zegoen banatuta: lehenengoa San Juan plazatik Lope de Larrearen kantoiraino luzatzen zen San Martin

izenarekin (lehenago San Sebastian deitua), nahiz eta 1916az geroztik Marcos Sagasti berrizendatu zen. Bigarrena, kantoi horretatik Ulako atarirainokoa, Zapatari izenez ezagutua eta 1925tik aurrera On Simon Martinez de Abad. Azkena, atari horretatik Santa Maria elizaraino zihoan, Arrankale zeritzon XVI. mendean. 1977an zatiketok ezabatu eta kale osoari Zapatari izena ezarri zitzaion.

Kale honi dagokionez, Bustamante-Zumalburu etxea eta Uriarte etxea dira aipagarriak.

Lehenengoak Zumalburu eta Bikuñatarren ikurrak dituen errenazimenduko armarri handia dauka. Bustamante izenez da ezaguna, XVII. mendetik 1986ra arte sendi hori etxearen jabe izateagatik, nahiz eta bere fundatzaileak Juan Martinez de Zumalburu eta Garzia de Alangua, eta Maria Saez de Bikuña eta Hernandez de Luzuriaga senar-emazteak izan.

Bigarrenak Uriarte etxea du izena. Agiri batean Juan Fausto de Uriarte jabeak harresiarekin muga egiten zuen bere lorategiko murrua berrosatzeko materialaren eskaeran dago dokumentatua, karlistadetan Gebarako gaztelua indartzeko harresi zabartutik harlandua hartzearekin izorratutakoa. Etxea oso garrantzitsua izanagatik ere, ezkutua herriko soilenatarikoen artean dago. Armarri zatitua da, ezkerrean ahoan arkume bat duten bi otso ageri direlarik, eta eskuinean bost larrosa. Behean etxeko jabearen ofizio militarra agertzen duten kanoi eta granadez betetako upelak daude.